

### *KONTU KONTARI*

#### HAUTS ZURIA

Egun hauetan ez dago desberdintasun handirik, denok bizi gara antzera. Irauten dugu ala hiltzen gara. Ez dago beste aukerarik, beste esperantzarik ez da leiho itxietatik sartzen.

Gertakizunen aurretik lantegira sartzeko jotzen zuten adar-raren antzekoa entzun genuen goiz hartan. Ez dakit zenbat denbora pasatu den harrezkero. Oihuka aritu zen, zulotik irten ez gintezen. Atearen zirrikitutik hauts zuri bat sartu zen eta ahoak tapatu genituen bustitako oihalez, heriotza zirrikitu txikienaz ere baliatu egiten baita.

Lehen egunetan argi izpi lotsagabeak saiatu ziren zirrikituetatik. Ataka irekitzen saiatu ginen, baina ezin izan genuen, trangatuta zegoen. Sartu bai, baina ezinezkoa zen irtetea. Egarrria baino okerragoa da ezin edana. Lehen egunetan, lurrean eseri, hankei heldu eta burua sartzan nuen belaun artean. Iluntasuna ilunago egiten zitzaidan eta negargura sentitzen nuen. Akitu egiten ninduen egiak, ito. Lehen egunetan esperantza bakarra hiltzea zela otutzen zitzaidan.

Atzo bertan gertatu zen azkena, hiruzpalau ohe harantzago zegoen emakumeak ezin izan du iraun. Bihotzak indar gutxi egoerari aurre egiteko. Hori esan dute, zerbait esan beharra da-

go eta. Alboko ohe-kideak esan didanez, jostuna zen; behin josi omen zion soineko loredun bat, aspaldi, oso aspaldi, udaberriari udaberri esaten zitzaionean. Gizonezko batek ekarri zuen, eta gizonezko berak atondu zion ohea, gizonezkoak eraman dituzten garai hauetan. Aiumak ateratzen zituen hasieran, txikiak, barrurantz eginak, inor jabetzerik nahi izan ez balu bezala. Gauaz, gaua zela uste dut, negar zotin isilak entzun nituen, baina ez dakit andrearenak ala gizonezkoarenak ziren. Gogoan dut, izan ere, hemen barruan berehala konturatzen da bat alferrikakoak direla negarrak, baita minezkoak badira ere. Bigarren egunean gizonezkoak injekzio bat jartzen ziola konturatu nintzen. Isilik pasa zuen eguna. Goizean desagertu egin zen gizona. Ez da gehiago etorri. Nik badakit, gauza horietan asko fijatzen naiz.

Atzo, ordea, bizpahiru ohe harantzagokoa konturatu zen arnasarik ez zuela hartzen. Azken sartutako andreaz ari naiz. Arin lurperatu beharra zegoen, aurrekoekin egin genuen bezala. Oheko izara bera erabili genuen gorpua biltzeko. Derrigorrezkoa da bakoitzak berea ekar dezan. Bustia zegoen eta ez dakit zer zen, barne jarioen bat, ezin eutsitako usuria... Malkoak, agian. Bi muturretan korapiloa eginda atondu genion izara. Ez zen beste inor urreratu. Heriotza aparte ikusi nahi dute eta ez dira konturatzen bizirik ari gabela usteltzen hemen. Beste gauza batzuetaz hitz egiten dute, ahapeka beti, inork entzuteko beldurrez edo. Geuk egin genuen lan guztia. Bihoztzekoa izan da, esan zuen bizpahiru ohe harantzagoko andreak, estutasunen bat izan du, dardara egin du une batez, eta azken arnasa bota du, azkena zela pentsatu ez badut ere, orduan. Aste batzuk badira bere alaba lurperatu genuela. Badaki zertaz ari den. Inguru batzuk betondo ilunez begiratzen gintuzten, arinago ibiltzeko eskatuz bezala, hark guztiak, heriotza hark, desatsegina sortzen zuela eta. Nork eta arnasa ozta-ozta hartzen duten hildako horiek. Andreak ez zuen errurik, haren eginbeharrekoak eginda zeuden, josi beharreko soinekoak jositak zeuden.

Adarraren oihu lazgarria isilik zegoen tarte luze bat aprobetxatu genuen. Bustitako oihalez tapatu genuen burua, begientzako zirrikitu txiki bat utziz. Ohetik altxatu, eskaileratan gora eraman eta itxita egon behar zuen atea ireki genuen. Ertzak hauts zurixkaz zituen. Ez ukitzen saiatu ginen. Oihuak izan ziren, atea ixteko, zertan genbiltzan, denak akabatu nahi ote genituen, itxi egingo zutela eta kanpoan geratu beharko genuela, horrelakoak entzun behar izan genituen. Baina andre hila ez zegoen barruan uzterik, laster hasiko ziren barne jarioak kirasten.

Bat-batean itsu sentitu ginen, ezin izan genituen begiak ireki, handiegia egin zitzaigun ustekabeko argitasuna. Behe-lainoak estaltzen du dena, esan nuen zerbait esatearren. Ez da behe-lainoa, esan zidan emakumeak, hautsa da, hauts zuria. Zulo bat ikusi genuen, hartarako apropos egina balitz bezala. Agian gizonak egin zuen, alde egin aurretik, etorriko zenaz jabetuta.

Bi muturretako korapiloetatik heldu eta sartu genuen. Ez zuen pisu handirik, hezur eta azal zen gizajoa. Beretzat egina zirudien, hain ondo zetozen neurriak. Lurra eman genion egur zabal batzuk erabiliz. Ez genekien nolakoa zen, zer pentsatzen zuen, zer sentitzen zuen. Ez genion hitzik esaten entzun. Aiumak, txikiak, barrurantz eginak, aiumak bakarrik entzun genizkion. Bat-batean egindako gurutze txiki bat jarri genuen lur gainean, eta elkarri begiratu genion oihaleko zirrikitutik. Agian ez zuen gurutzerik nahi, ez genuen ezagutzen. Zutikako maki-la bakarrik utzi genion, seinale, mugarri. Jostuna omen zen, hala berresan zidan bizpahiru ohe harantzagokoak. Ez zuen soineko loredun gehiago josiko.

Zer gara, zertarako ahalegin guztiak, zertarako sufrimenduak. Gora begiratu nuen, baina hauts zuriak ez zidan ezer ikusten utzi. Agian, behe lainoak esan beharko nuke.

Andrea lurperatu dugu, baina inork ez du hitzik esan. Ez da cupidarrik ikusten jendearen begiradetan, ezta hitzetan ere. Hildakoarekiko begirunerik eza, horixe besterik ez da igartzen

haien begiradetan, amorrua eta ernegua hiltzera hara joan beharrekin. Guk ere antzerako begiradak jaso ditugu, atea ireki behar izan dugulako, hildakoa barruan usteltzen utzi beharrean, lurperatu dugulako. Ezikusia egin dut.

Hilobi ugari ikusi dugu kanpoan, bizion hilobi den zulo honetan sartu aurretik hildakoenak, seguru asko, gurutze dunak eta gurutze gabeak, izenik gabe denak. Itzalik gabeko itzalak ematen dugu.

Badira bi egun adarrik entzun ez dugula. Gauzak baretzen ari dira hor kanpoan. Nola ote daude utzi genituen etxeak, nola kaleak. Nola, eraman zituzten gizonak, zaharrak, gazteak. Hautsak berdinduko ote gaitu?

Gaur, aspaldiko partez, adarra entzun abartu dugu, baina urrun izan da, gure eremutik at. Mugimendu gehiago sumatzen da hemen behean, jendea barbarora itzuli da, jateko usaina zabaldu da, hemen behean dagoen guztia amaitu beharra balego bezala, irteera prestatuz. Arriskua moteldu da une batez, gaixoari minak tregoa ematen dionean bezala.

Laugarren eguna adarraren urduritasunik gabe. Bat-batean atea ireki da eta denok begiratu dugu hara. Berehala itxi da. Atorra zurituta dakar norbaitek eta atzera egin du jendeak. Eskuan pakete bat dakar. Lurperatu genuen emakumea egondako ohera joan da. Hutsik ikusi du. Ezker-eskumara begiratu du, baina begirada guztiak uxatu dituela konturatu da. Ez du txanorik kendu. Burua makurtu eta oheari helduz egon da une batez. Barrurantz egindako hasperena entzun abartu diot. Nik badakit, gauza horietan asko fijatzen naiz. Berriro irten da eta ordura arte ez bezalako oihartzuna entzun da atea ixtean.

Paketetxoa geratu da ohe gainean. Eskuetan hartu dut. Injekzioak dira, mina baretzeko injekzioak.

*Joxemari Urteaga Garmendia*